

Goi

Goierritarra aldizkaria

379. zenbakia 2010eko apirilak 23



**XABIER
ANUNTZIBAI
'XTRM'**

GURUTZ SARASOLA 'LOTSATI'
POETA ITSASONDOARRA

ILUNPETIK ARGIRA



sektore


HOTELA
DOLAREA
JATETXEA

20 LOGELA
EZKONTZAK
OSPAKIZUN BEREZIAK
KATERING ZERBITZUA
EKITALDI KORPORATIBOAK

NAFARROA ETORBIDEA, 57
BEASAIN T 609 531 483





Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG




R.P.S.:32/04

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



Irati Goikoetxea

Aupa Ekaitz!

Zemuz haile? Oporran jiran idaztea tokau zaiuk beize, kasualidadea izangoek, baino ez zakiat...batek baño gehiok pentsauko dik hainbeste jai eun dittuen irakasleok ezinbesten ibili behar beti oporran jiran! Ze ingo zioau ba! Hartu, ta banau ezin dienez, norbean

poltsikon gorde!

Akordatze al haiz umetan poltsikoi peko prakak jazten genittunen eskumuturrek mukiz beteta ibiltzen genittula? Oain kontuauta neok zuloz beteta ibiltzen ditteun poltsikok eukitzea baño hobea dala bate be ibiltzea. Mukik? Barrua tragua ta aurea!

Krisik ez baleo ez zakiat debateik sortuko ote litzeke, baño kontue dek bik harripau gaittuela bete-beten, krisik

Azkarro iritsi nahi omen diau,

baño ez zakiat noa! Gero ta denbora gehio

itten diau ta karreteran!

eta debatek. Peajea jarri behar omen ditek Etxegaraten. Bai, puntaren puntan, ta txorie kantari hasi dek, txirulirulin, txirulirulin... azkenekoa zeinek kantauko don erabaki nahien. Nik ze nahi dek esatea, garbi zeok eozer gauza eabiltzen donak ordaindu in ber izaten dola, ta ze esanik ez karreterak in ta in, ta karreterak bete ta bete gailtzen garaiotan. Nik ez zakiat motel, azkarro iritsi nahi omen diau, baño ez zakiat noa! Gero ta denbora gehio itten diau ta karreteran! Bakik ze esaten don esaera zarrak, korrika ibili nahi dona, zalapartaka ibiltzeek.

Kontue ez dek hain sinplea, orde, Naparro aldea juteko alternatiba egokik ez zeok, garraio publikoa re eskas ta urri... Ta hi ta ni, beste asko bezela, napartuta bizi gean bi giputxi... eunero ezpada re (holako asko izango ittuk) maiz-maiz harea beida ta handik honeako bueltan jartzen geanak.

Ta hi Ekaitz, nola haile aspaldion, polsikoko zuloz ondo josita?



Ekaitz Goikoetxea

Ilepa Irati!

Aspaldion, aspaldion... hementxe neska, emandakotik hartuz betire, inoiz atsedeen, inoiz atsegin; aspaldin txarrik ez dinat izan behintzet. Hoi bai, aste santue laburtxo geau zaian aukeran, txosten akademikoa dala, idazlanak diela, askok bestela uste arren, baakin, opor eunek baino jai eun gutxigo izaten dizkinau ume mukizuk hainbeste maitte ditteunok.

Poltsikoko zuloz ondo josita dittuan? Poltsikok tarratau beharrik pe, zuloz ondo osauta gailtzen lehen'e: golf-zuloz, begizuloz, amazuloz...Ta nik satorranak maitte. O adarran

Etxegaraten peajea jarri behar duela?

Lasai, denbora eskumuturren eamaten ez

deunoi beti geauko zaiun Lizarrusti!

puntan, puntan puntan txoriñoi txirulika aitzeko pausalekuk eskeintzen dizkion aldapeko saarranak. O... Kontue den aldapeko saarra usteltzen hasie dala, ta adarran puntan puntatik harro aitzen zan txorik lau-bost urteko umen ahotik baño ez dola kantatzen oain. Atzoko mendi ondu, gaurko hondamendi.

Bost errailekok, kurba ta tunelik pekox; karreterak ez, errepidek (erret + bide > errege + bide) nahi dizkinau guk, balio gutxi ta kostu handiko errepidek. Gu ekologistak! Bijaiea, paisajea, peajea, ajea. Ajea, bai, biharamune baño gehixeo luzauko zaiuna.

Bai, nei're askotan galdetzen ziaten zenbat behar izaten dean Beasaindik Burlata iristen, ta ezin izaten dinat danan jakinmine eantzun bakar batekin ase. Ismael Serranon azken CDa ta Korrontzin hiru kanta, o Beniton lau, o Imanolen zazpi. Seun, ze eun. Etxegaraten peajea jarri behar duela? Lasai, denbora eskumuturren eamaten ez deunoi beti geauko zaiun Lizarrusti!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eskuzabaltasunez jokatzeko unea dute agintari eta politikariek, eta eskuzabaltasunez jokatzeko unea dugu herritarrok. Gainerakoan nekez sendatuko ditugu gure herrian zabaldu diren zauri larriak.



Idurre Eskisabel

Mugarri historikoa eta eskuzabaltasuna

Hitz larriak erabiliko ditut, alde bateko zein besteko handi eta boteretsuen diskurtsu eta liburuak betetzen dituztenez maite ez ditudanak, baina arriskua hartu, eta erabili egingo ditut, letra larriz: MUGARRI HISTORIKOA bizi dugu. Hala sinetsita nago, eta poza eta ilusioa sortzen dit.

Sinesbera naiz beharbada, uste sendo bera bainuen orain dozena bat urte, Lizarra-Garazikoan. Eta, noski, sinesmen bera berpiztu zitzaidan 2006ko martxoan ETAK su-eten iraunkorra aldarrikatu zuenean. Gure militar propioak tarteko, zaplazteko ederrak hartu nituen, ordea, batean zein bestean.

Baina, hara, oraingoan bai, oraingoan inoiz baino argiago ikusten dut mugarririk historikoa dela egungoa. Mugarri historikoa Ezker Abertzaleak bere kabuz, bestelako baldintzarik gabe eta bere kideen gehiengoaren babes zabalarekin adierazi duelako bere borroka aurrera eramanez eta helburuak iristeko bide politikoa baino ez direla baliagarri. Zeharka bada ere, erakunde militarri esan dio indarkeriak ez duela balio, ez dela zilegi, eta haiek erre edo iso egin, berak bitarteko politiko hutsen aldeko apustuari eutsiko diola.

Alegia, mugarri historikoa da, ziur aski, ETA sortu zenetik haren borroka armatuak inoizko babes txikiena duelako euskal gizartearen; baina bereziki mugarri historikoa da inoizko babesik txikiena duelako ezker abertzalean. Are, mugarri historikoa da indar subiranisten artean ez delako inoiz halako adostasunik egon indarkeriaren baliagarritasun ezaren eta bide politiko hutsen aldeko jarreraren inguruan. Funtsean, mugarri historikoa, batetik, bakerako aukera zabaltzen delako, eta, bestetik, burujabetza ariketa egiteko bidean aurrerapausoak egin daitezkeelako.

Eta, nago, mugarri historikoei neurri bertsuko erantzunak eskatzen dituztela; bereziki, eskuzabaltasunez jokatzeko. Hau da, alderdikeriak guztiz alboratu eta politikari benetako zentzua

ematea: interes komunaren defentsa, desberdin pentsatzen dutenekin akordioetara iristeko gaitasuna lantzea, eta dela herri edo gizarte, kolektiboaren mesedetan aritzea.

Baina ez dakit horretarako prest gauden. Buruzagi politiko batzuk mugarri historikoa bizi dugula ukatzen entzun ditugu behin eta berriz, Ezker Abertzaleak hartutako erabakia hutsala dela errepikatzen. Horra hor Espainiari atxikitako alderdien jarrera, egungo jokalekuan eroso baino erosoago daudenaren seinale. Beste batzuk, baietz, noranzko egokia hartu duela Ezker Abertzaleak, baina urrats handiagoak egin behar dituela azpimarratzen. San Tomasen jarreraren nolabait, “sinesteko ikusi” fidagaitz horretan. Eta, egia, aurreko eskarmentuak aintzat hartuta zilegi da tentuz ibiltzea, baina horrek guztiak ez ote du aitzakiatik politikaren zentzu orokorra ahaztu eta norbere politikakerian ainguratze? Era berean, elkarlanerako deiak entzun ditugu Ezker Abertzaleetik. Baina datozen proposamenak ez ote daude ezker abertzale horren betiko dinamiketara eta kultura politikora lotuegiak beste zenbait erakartzeko? Ez ote dago hegemonia nahi bat sektore horretan ere?

Galderak mahai gainean jartzea erraza omen da; erantzunak ematea zailago. Handi geratzen zait niri galdera horiei erantzutea. Baina berriro diot, eskuzabaltasuna da azkenaldian behin eta berriz burura etortzen zaidan hitza, mantra bat balitz bezala: eskuzabaltasunez jokatzeko unea dute agintari eta politikariek, eta eskuzabaltasunez jokatzeko unea dugu herritarrok. Gainerakoan nekez sendatuko ditugu gure herrian zabaldu diren zauri larriak, eta nekez erantzungo diegu herri zein gizarte bezala etorkizunak aurrez aurre jartzen dizkigun galdera larriei.

Eta bukatzeko, aitorten bat egin nahi dut: pozez amaitu nahi nuen artikulu hau; ‘Egunkaria’-ko langile ohi naizen heinean absoluzioak sortutako poza adieraziz. Baina beste asko bezala ezinean nabil. Ezinean gure antzeko egoeran izan diren beste batzuk bidegabe zigortuta jarraitzen dutelako, eta ordu eskas batzuren buruan beste hamar lagun inkomunikatu dituztelako. Pentsa zein dinamika larritan bizi garen, poza sentitzea eta adierazteko gaitasuna ere murriztua baldin badaukagu.

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

Izen-emate epea:

Maiatzaren
3tik 12ra

- Ikasleak ezagutzen ditugu.
- Tutoritza eta orientazio pertsonalizatuak.
- Irakasle talde finko eta konprometitua.
- Eraitza onak.

Garraioa
Jargela

BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologiak
- Giza eta gizarte zientziak



www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800 Email: bazkao@ikastola.net LAZKAO



Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



5

Marraskiloaren abiadura



Kobazuloetako bizimodu gogorretik gure bizimoduraino bizi kalitatea asko hobetu da baina hain azkar bizi beharra al dago? Tarteko bide ugari daude eta gaurko honetan **SlowFood** ekimenari buruz idatzi dugu. "Poliki jateak" gure ingurugiroari nola lagundu diezaiokkeen azalduko dugu. Izan ere, elikagaien ekoizpena, ustiapena, garraioa eta salmentak eragin zuzena baitute gure bizitzan eta naturan.

Carlo Petrini sortu zuen 1986. urtean elkarte Erromako erdigunean Fast Foodeko "jateke" ezaguna ireki zutenean. Eko gastronomia ere esaten zaio eta egun 83.000 bazkide ditu. Bere helburuak honak hauek dira:

- Dastamenaren beharra erdipurdiko kalitateari eta macdonalizazioari aurre egiteko. Dastamena errezeta ugari-ekin lantzen eta zapore ezberdinez gozatzen ikasi behar dugu.
- Bertako sukaldaritza, landare eta animalia ohiko bariatateen eta ekoizpenen babestea. Galtzeaz dagoen nekazal eta abeltzaintza aniztasuna sustatu nahi dute, baita basatiak direnak ere. Lehengaiak, jakiak eta teknikak babestu

nahi dituzte tokian tokikoa suspertuz, kultura eta ekonomia indartuz.

- Nekazaritza ekologikoa, garbiagoa edo ez intentsiboa bultzatu nahi ditu. Lurralde txiroetan garapen aukerak ere eman dezakeenak.
- Elkarbizitza eta gastronomia lokalak gorde beharrekoa direla uste dute, beraien balio historiko, artistiko edo sozialarengatik. Kalitatezko jakien inguruan egiten den solasaldiak gorputza eta arima elikatzen baitute.

Besteak beste, Slow Food Fundazioak 2003. urtean bioaniztasunaren defentsarako sortu zituen bi proiektuak hauek.

Gotorlekuak kontsumitzaileak hezteko, elikagaiak sustatzeko, azokak garatzeko eta ondareak zaintzeko sortu zen. Bertan Euskal Herriko hainbat produktu sartu dituzte: Zallako tipula morea, Karrantzako aurpegi beltzako ardien esnearekin eginiko bizkaitar gazta, Mungiako taloa eta Txorierrri euskal txerria.

Gustuaren Kutxak, berri, desagertzeaz dauden zapore eta produktu gastronomikoak berreskuratu eta katalogatzen ditu. Produktu hauek onuragarriak, garbiak eta bidezkoak

"Bizitzan abiadura
gehitzea baino gauza
garrantzitsuagorik
bada"
Gandhi..

bezala defini daitezke. Arraza bereziak suspertzen ditu eta lurak ematen duen elikagaien berezko balioa bultzatzen du. "Agrazón de Orduña" mahats basatia, Orduñako ospina, Busturiako tomateak, Gesaltzako gatzak, Betizuak, azpigorri ahuntza, euskal antzara, Derioko zerba nanoa, udazkeneko euskal porrua eta abar luzea aukeratu dituzte beraien katalogoan sartzeko.

Gastronomiaz gain, ekin-tza honetatik abiatuta Slowcities izeneko proiektua ere martxan da. Herriek izendapen hau jasotzeko betebeharrak finko batzuk ditu: 50.000 biztanle baino gutxiago izatea, inolako hiriburua ez izatea, Naturaren aldeko araudia zehaztea, bizimodu erritmo lasaia sustatzea, herriak identifikatzen duten ohiturak mantentzea, beharrezko aurrerapenei uko egin gabe. Herri hauek energia berriztagarrien aldeko apustua dute, gas isuriaren kontrola ere zorrotza eta baratzeak berreskuratu eta babesten dituzte. Munduan zehar herri ugari daude eta hemengo Lekeitio eta Mungia aipatuko ditugu besterik gabe.

Gogoia izanez gero Carl Honoré-ren "Elogio a la lentitud" liburua gomendatzen dizuegu.

JAKIN BEHARREKOAK

"Aniztasuna landu. eskubideak erein." lelopean "Red de Semillas"-ek kanpaina abian jarri du. Ekologistak martxan elkar-teak ere parte hartuko du. Honekin betiko bariatateak eta hazi librearen defenda nahi dituzte eta gizarteak gai honekiko kontzientziatu. Nekazal aberastasun genetiko berreskuratu nahi da, kalitatea eta elikadura subirotasuna ziurtatuz. Gobernu eta autonomi erkidegoak politika aktiboa garatzea bultzatu bertako bariatateak itzultzeko. Nekazariak beraien haziak sortu eta saltzeko askatasuna ere eskatzen da.

WWF/ADENAK Doñanako errepedietan gertatzen dena salatzen du. Sei hilabete inguruan lau lintze hil dira autoak harrapatuta. Lintzeen heriotza kausa nagusia errepedietako istripuak dira.

EAEko babestutako guneetan meatzerik ez jartzea onartu dute. Eusko Legebiltzarrak Ingurumen legea aldatzea onartu du. EAJk salbu, beste alderdi politiko guztiek babestu dute ekimena. Hortaz, ezingo dira meatzeak ireki Babestutako Naturaguneetan, ez lurpekoak, ez airekoak. Lanean ari diren meatzeetan ere eragina izango du, hauek ezingo dira handitu edo eraldatu eta ustiaketa amaitzean jabeak azpiegitura guztiak desegin behar-ko ditu.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

www.jakintza.net



Batxilergoa jakintzaikastolan

Zientifiko Teknikoa eta
Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Euskal heziketa bermatuz
IKT arloan aintzindariak

Altamira auzoa Z/G

Telef. 943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



jakintzaikastola



Euskadi
2 0 0 9

XIII. gazta eguna

2 0 0 9 k o
maiatzak 2 igandea



Apirilak 28, asteazkena

18:30etan: "Idiazabal gaztarekin
postreak" ikastaroa. Julki gozotegikoen
eskutik Arretxe elkarteak.

Apirilak 29, osteguna

19:00etan: Maridaje jardunaldiak Iban
Mate sukaldariaren eskutik: Idiazabal
gazta eta txakoliña Elizalde elkarteak.

Apirilak 30, ostirala

18:00etan: XI.Mami txapelketa.
Jubilatuak Elkarteak.

Maiatzak 1, larunbata

17:00etan: II.Euskal artzai-txakur
lehiaketa Arizkorreta ondoko belardian.

Maiatzak 2, igandea

XIII. Gazta Eguna

10:00etan: Artzainek postuak irekiko
dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta
egiten hasiko dira era zahar eta
modernoan.

11:30etan: gazta ketzen eta ardi mozte
ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia **Ignacio Mari
eta Benito Eziolaza Goiburu** herritarrei.

13:30etan: Sari banaketak: postu
dotoreenari eta gazta onenari.

Ondoren Herri bazkaria eta
Bentazarreko mutiko alaiak
taldekoen kantaldia.

idiazabal

Oharrak:

Gazta dastatzeko aukera izango da:
6 pintxo gaztai 2 eurotan.

Mamia dastatzeko aukera izango da.

Gazta onena sarituko da,
jendearen iritzia kontutan hartuta
(txartela 2 euro).

Artzaien postu dotoreena sarituko da.


Gaztaia ketzen ikusteko aukera egongo
da.

Artzaiak bere artaldearekin herria
zeharkatuko du.

Autobusa jarriko da aparlekuetatik
herrira.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



kutxa



Denetik (XXXV)

Maizpide euskaltegia

“Kaltzontzillo hok bost eurogatik erosi nitun Ordiziko perin”

Izenburukoa bezalakoak maiz entzuten ditugu Goierriko kaleetan. Esaldi polit askoak diruditen arren, kontu handiz ibili behar dugu, erdal kalko “gaiztoak” uste baino barneratuago baititugu! Jabetu al zarete non dagoen “akatsa”? Hala ez bada, erreparatu ondorengo esaldiei:

- ✗ Kaltzontzillo hauek bost eurogatik erosi nituen Ordiziako perian (*desegokia*)
- ✓ Galtzontzillo hauek bost **euroan/eurotan** erosi nituen Ordiziako ferian / azokan (*egokia*)
- ✓ Drogazale horrek bost **euroan/eurotan** ama ere salduko luke une honetan! (*egokia*)
- ✓ Drogazale horrek bost **euroren truke** ama ere salduko luke une honetan! (*egokia*)



ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Manta artean bilduta goxo-goxo egongo ote dira Pello eta Samanta?
2. Pellok gaezan pijamaren mahukak bildu beharrik ez duela izango uste dugu goierritar askok

OHARRA: gaur ere denak zuzenak, arraioa!

“Ana Mari zuzendaria eta Txomin bilduta dare”

Beste hau ere entzutea tokatu zitzaigun behin, alajaina! Esan beharrik ere ez dago, batere arrotza egiten ez zaigun arren, hainbat pertsona bileraren batean direla esateko ez dugula modu txukunena aukeratu, ‘**bildu**’ aditza ez baita egokia horretarako. Ia beti bezala, gaztelaniarekiko menpekotasuna da horren erruduna, esaldi hori bota zuenak Cervantes-en hizkuntzako “estar reunido(s)” izango baitzuen buruan!

Nola esan behar dugu, beraz? Bada, horelaxe:

✓ Ana Mari eta Txomin bileran dira / daude. (*egokia*)

✗ Ana Mari eta Txomin bilduta daude. (*desegokia*)

“Reunirse” aditzerako, berriz, egokia da gure **bildu** (**elkartu** edo **batu** bezalaxe).

✓ Ana Mari eta Txomin idazkaria Xatur alkatearekin bildu ziren Tolosan.

✓ Ana Mari eta Txomin idazkaria Xatur alkatearekin elkartu ziren Tolosan.


✓ Antzerkia ikustera bildu ginen koadrilakoak.

Baditu **bildu** aditzak, bestalde, beste hainbat adiera, zein baino zein interesgarriagoak:

- ✓ Hankak bildu zituen gure Mariatxok (**luzatuta** baitzitu).
- ✓ Ardiak bildu zituen artzainak hidrogenesi leberkorra zeto-rra jakitean.
- ✓ Lagun guztiak bildu zituen On Emeteriok, eskolan maistra izandakoa bil zela esateko. (=elkartu)
- ✓ Maindirean bildu zuen Juanitak apaizak emandako gurutzea.
- ✓ Jaungoikoak bildu duena ez dezala gizonak bereizi!
- ✓ Zauria bildu zion (zauriak lotu zizkion), arropa ez zikitze! (**‘bendatu’** edo itsusiagoren bat erabili ordez).
- ✓ Juan Joxe Agirre fraide beneditarrak hainbat kartel bildu ditu azken berrogeita bamar urteotan! (=recopilar)
- ✓ Alkandoraren mabukak bildu zituen Manolik, izerdi patsetan baitzen. (=recoger)
- ✓ Nostradamusen hitz horietan biltzen dira apokalipsiari buruzko teoria gebienak. (=laburbildu)
- ✓ Behiak bildu ditu Luziano unaia. (=jetzi)
- ✓ Pitoi suge beldurgarria bildu zitzaion gerrian... eta ia arnasa barto ezinik geratu zen Jabato beroia! (=enroscar-se)
- ✓ Mukizapi xume batean bil-bil eginda ekarri zizkidan Arantzazuko harriak. (=envueltos)



kutxa



Gurutx Sarasola 'Lotsati' Itsasondoko poeta:

Ilunpetik argira

Maiatzaren 2an bere jaiotzaren
95. urteurreneko oroitzapenezko
ekitaldia egingo da

- Aroztegia
- Altxariak neurritra
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobek"**

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

—

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

—

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

Gurutz Sarasola Martinez Itsasondon jaio zen, Fernando Enea etxean, 1915eko maiatzaren 3an. Bederatzi seme-alabako familian, bigarrena. Gurutz iritzi abertzale sendoak zeuzkan industrialen familiako semea zen. Gurutzen aitak, Jose Manuel Sarasolak, Juan anaiarekin batera, aita-ren eskutik jasotako arbelaren negozioa zeraman Itsasondon. Sarasolatarrek, Itsasondoko Larregi baserrian jatorria zutenek, XIX. mendeko bigarren zatian ekin zieten inguruko arbel harrobiak ustiatzeari, baita lurpetik ateratako harri honekin arbelezko produktuak ere egiteari. Horrela, Sarasolatarren arbelak Europako txoko askotan lortu zuen ospe handia. Juan Martin Sarasola Goitiak, Gurutzen aitonak, altxatu zuen negozioak 1970ean eman zituen onenak, Itsasondon eragin eta lorratz sakona atzean utzita.

Familia abertzalea

Abertzaletasuna, berriz, Gurutzen amonaren aldetik omen zetorkien. Berau, garai hartan baserri doktrina euskaraz ematen eta baserriarrek euren seme-alabei euskarazko izenak ipin diezazkieten ahaleginetan ibiltzen zen. Juan Iñaki, Gurutz, Andoni, Edurne, Terese, Kelmen, Arantza eta Jokin, Sarasola Martinez familiaren seme-alaben izenak ere badi-ra horren adibide garbia. Gerora, bere olerkietan islatuta utzi zuen bezala, Gurutz gaztea bera ere abertzaletasunari eta euskaltzaletasunari sutsu lotu zitzaion. Abertzale ideario horretan Gurutz gazteak, garaiko beste euskal abertzale askok bezala, Irlandako independentzia izan zuen erreferente nagusia, Eamon De Valera buruzagi irlandarren miresle sutsua bihurtzeraino. Era berean, gogoratu beharrean gaude Gurutzen aita bera, Jose Manuel Sarasola, Itsasondoko alkatea izan zela 1931 eta 1936 urteen artean. Jose Manuel buru zuen udal gobernuak estreinakoz autodeterminazio

eskubidea aldarrikatu zuen Euskal Herriarentzat 1931ko apirilaren 31n. Ideia abertzale hauengatik familiak Gerra Zibilaren ondorengo errepre-sioa jasan behar izan zuen.

Bestalde, Sarasola Martinez familia giro abertzale tradizional eta katoliko ingurukoa bazen ere, nahiko aurrerakoi agertu zen seme-alabei emandako heziketan. Horrela, Gurutz berak eta bere gainontzeko zortzi anaia-arrebek goi-mailako ikasketak egin zituzten. Ikasketa horien artean ez ziren falta hizkuntza eta musika diziplinak ere. Gurutzek batxilergoa egin zuen Lekarozeko ikastetxe ospetsuan, berriz, Donostian, merkataritzako ikasketak bete zituen aitaren arbel negozioan jarduteko asmoz. Ingelesa ikasi eta frantsesa hobetu zuen Gurutz gazteak Mont de Marsan-en egindako urte beteko egonaldian. Esperantoa ere menderatzera ailegatu omen zen.

Donostian, 'Aitzol'-en bizilagunak

1929an, familia osoa Donostiara aldatu zen, Plaza del Centenario 6an izan zuten bizitokira. Bertara aldatu arren, familiak eutsi zion euskal giroari, baita Itsasondorekin zeukan lotura sendoari ere. Donostiako etxe honetan, gainera, familiak harreman estua egin zuen soilik pisu bat beherago bizi ziren Jose eta Zoila Ariztimuño neba-arrebekin. Jose Ariztimuño 'Aitzol'-engandiko hurbiltasun hau gakoak izan liteke gerora Gurutz gazteak literaturan egin zituen urratsak azaltzeko orduan.

Bestaldetik, Donostiako etxean Gurutzen ama seme-alaben alderdi sortzaile eta artistikoaz arduratzen omen zen, musika eta antzerkia gaztetxoek algara eta jolasa bihurtuz. Gurutz bera ikusi behar dugu familiako guztientzat antzezlanak idazten eta prestatzen, Gabonetan eta bestelako jaietan ere elkarrekin antzeztzen zituzten antzezlanak. Ildo horretan, familiak



Gurutz bere aitarekin (Jose Manuel Sarasola), Itsasondon

Eziñ bazaitut maitatu benetan
maitatuko zaitut ametsetan,
begiak itxi eta
egongo naiz zurekin izketan,
egongo baziñake bezela
nerekin zeruetan.

GURUTZ SARASOLA 'LOTSATI'

jaso ahal izan dituen oroitzapen apurrei kasu eginez gero, Gurutzek Madrileraino egin zuen bidaia berak idatzitako antzezlan bat argitaratzearren. Antzezlan horren arrastorik, tamalez, ez dago.

Gurutzen izaeraz, isil eta barnerakoi gisa gogoratzen dute, beti irakurtzen eta idazten buru-belarri ziharduena. Zoritzarrez, ez dago horretaz eman daitekeen datu zehatzik. Ez dakigu zeintzuk izan ziren bere gogoko idazleak eta irakurketak, Gerra Zibilak Gurutzen liburutegia ere galdu baitzuen. Hala ere, utzitako obra laburrean oin hartuta, ondorioztatu behar dugu

garaiko euskal literatura ondo ezagutzen zuela, berau baliatzen zuela euskara bere kasa lantzeko eta bizi izan zen artean 30eko hamarkadako olerkari nagusien lanak, hau da, 'Lauaxeta', 'Lizardi', 'Orixé', 'Jaurtakol' eta beste autore batzuen lanak, ezagutu, irakurri eta, beharbada ere, landu ahal izan zituela. Halaber, ingelesa eta frantsesa jakinda, ez litzateke harritzekoa izango Gurutzek hizkuntza horietako literaturak gertutik gertura ezagutu izana, batez ere frantsesa, Gurutzen olerkiek iradokitzen duten bezala.

Familiaren eta Udalaren omena

Gurutz Sarasola Martinez Lotsatiren familiak eta Itsasondoko Udalak, poeta jaio zeneko 95. urteurrenaren oroitzapenezko ekaildia egingo dute maiatzaren 2an, Itsasondon. Gurutz Olaskoaga Sarasola, Lotsatiren ilobak egin du familiaren bozeramale lana.

Lehenengo omenaldia jasoko du beraz Lotsatik.

Hala da, orain arte ez da ezer egin. Bagenekien poesiak idazten zituela, baina ez zitzaigun hain interesgarria ote zen iruditzen. Baina jendea mugitzen hasi zen, idazleak batez ere, eta ikusi dugu garai hartako nahiko poeta ona zela. Beraz, kanpora pauso bat ematea pentsatu dugu. 95. urteurrena denez aurren egitea pentsatu dugu. Plaka bana jarri diegu etxean eta hilerrian.

Noiz izan zenuten osabaren lanaren berri?

Azkeneko urte eta erdian, Jon Aranok Goierriarra aldizkarian (3. zenbakia. 1990eko urtarilan argitaratua) hasitako bidea garatzen eta garatzen joan da. Eta pentsatu dugu familiak zerbait egitea. Aurretik 75ean, zerbait argitaratu zuten Kutxako aldizkari batean. Itxura denez, Koldo Mitxelenak poesia batzuk ikusi zituen eta pentsatu zuen nahiko gauza garrantzitsua zela. Baina hor gelditu zen. Garai hartan inork ez zekien 'El Dia' egunkarian argitaratzen zituela Gurutzek poemak. Ni Donostiako bibliotekara joan nintzen eta 'Dia'-ren ale guztiak ikusi eta poesiak eskuz idazten aritu nintzen, ez zuten fotokopiatzen uzten eta, eta bilduma bat egin nuen. Baina familiarentzat egin nuen. Hor gelditu zen. Gero Jon Aranok Goierriko eta Itsasondoko gauzak biltzen zituen eta berak hots egin zuen. Lehenagotik hasita zegoen, baina motel. Jon Arano lehenengo eta gero jende gehiago etorri da. Garatzen eta garatzen joan da eta pentsatu genuen momentu bat iritsi zela fundamentuzko zerbait egiten saiatzeko.

Nire osaba-izebek ez zuten pentsatzen hainbesteko balioa zutenik. Bazekiten beren anaiak idatzi egiten zuela, gauza askoz ere gehiago zegoela... Gerra garaian, Frankistak sartu zirenean, beldurragatik, dena erre zuten: bere biblioteka, etxean zeuden liburu guztiak... Ez zen ezer ere gelditu. Beti esan izan dute bere senideek, berezia zela, ixila, beti idazten eta irakurtzen ari zela, hizkuntzak ikasten... Baina hortik jakitea, poeta interesgarria ote zen? Hor pauso bat dago eta jakina guk ez dugu poesiari buruz ulertzen. Baina itxura denez, interesga-



9 anai-arreba, Gurutz da ezkerrekoa.

ria da ezta bere poesia. Baudaka bai interesa.

Han eta hemen Sarasola familiak Gurutz ahaztuta izan ote duen esan izan da. Hilerrian plakarik ez dagoela...


Inoren izenik ez dago. Nire aitona, ama... denak han daude baina ez dago inoren izenik. Ez dugu inoiz jarri. Familian eza-gunena egin denez, plakaxo bat jarriko dugu. Dena den, bera ez dago hemen lurperatuta; Donostian baizik.

Lotsatiri buruzko liburua ere egiteko enkargua eman duzue.

Zor txiki bat beharbada bazegoen. Alvaro Rabellirekin kontaktuan jarri ginen eta interesatzen zitzaionez berari eman diogu geneukan informazio guztia. Asko ez daukagu. 21 urterekin hil zen. Anai-arreben artean bigarrena zen. Oraindik bizirik dauden gazteenak, harreman gutxi izan zuten berarekin eta bere garai-ko osaba-izebak hil dira. Berandu samar hasi gara. Baina familiak gordetzen zituen oroimenak gelditu dira.

Bere idatzirik ez da kontserbatzen beraz.

Ezer ere ez. Oso familia abertzalea zen eta gauza guztiak erre egin zituzten, bai Itsasondon zeuzkatenak, bai Donostian zeuzkatenak. Pena da bai. Alvaro Ravellik ere esaten zigun, bibliotekarekin ikusiko litzatekeela ze iturri zituen berak, zer irakurtzen zuen... Gurutzek bere buruaz beste egin zuen eta familiarentzat ere trauma bat izan zen. Martxoan hil zen eta gerra uztailen hasi zen. Lau hilabete lehenago izan zen. Dena batera etorri zen: bere buruaz beste egin, gerra hasi... Pena izan da, izan ere itxura denez, gauza gehiago ere bazituen. Antzerkiren bat ere ba omen zuen. Amari entzunda, etxean antolatzen omen zituen funtzioak.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net

Alvaro Rabellik 'Ilunpetik Argira' liburua idatzi du "Amodiozko olerkiekin barne mina nola islatzen zuen da, bere garaiko idazleengadik gehiena bereizten duena"

Liburua egiteko enkargua jaso zenuenean, Lotsatiren berririk ba al zenukaun?

Hasteko esan behar dut, literatura lan talde bateko kide naizela. Jon Kortazarrek zuzentzen duen talde batekoa. Azken urteotan ibili gara, eta oraindik ere bagabiltza, euskal literaturaren historia egiten. Horretan genbiltzala, kontu hau etorri zitzaigun. Interesgarria iruditu zitzaidan, gure datuak osatze aldera. Egia esan, Lotsatiri buruz ez nekien ezer ere ez. 2004an, Xabier Mendigurenen 'Arbelaren gainean' liburuari esker nahikoa ezaguna zen eta Arano berak argitaratutako gauzekin, ezaguna hasia zen izaten. Nik hori guztia jaso nuen.

Horrelako kasuetan egin behar den lehendabiziko gauza da, lan guztiak hartu, hartu bibliografia eta ea besterik ote dagoen ikusi. Hor bazeuden 20 bat olerki argitaratuta. Baina gero konturatu nintzen, horretarako nahiko bide ona izan daitekeela, Julen Urkiza ondarrutarrak idatzi zuen, Euskal Olerki bibliografiaren bilduma. Liburu horretara jo eta konturatu nintzen, Lotsatik hainbat eta hainbat olerki idatzi omen zituela. Beste zerrenda horretan agertzen ez zirenak ere badaude. Horien peskizan ibili naiz. Hor bazeuden Lotsatirenak ez zirenak, edo errepikatuak... azkenean ezagunak zirenaz gain, bost gehiago aurkitu ditut. Lehendabiziko lana izan da, Lotsatik hainbat aldizkaritan idatzi zituen olerki guztiak jasotzea. 25 bildu ditugu.

Hil baino lehentxeago, liburua egitekotan zebilen. Liburu hori ez dakigu idatzi ote zen, ailegatu zen inprimategira, irten zen... galdu egin zen. Gerra Zibilarekin paper guztiak galdu egin ziren eta hor arrastoa galdu egiten da. Ematen du, Lotsatik bazuela asmoa aurrera egiteko.

Jose Ariztimuño 'Aitzol'-en laguntza izan ote zuen esaten duzu liburuan.

Lotsati 'El Dia' egunkarian idatzen hasi zen. Dia egunkariaren arduraduna, Aitzol zen. Ez hori bakarrik: Aitzol Lotsatiren bizi-laguna zen. Ez dut inon aurkitu beraien harremanari buruzko ezer, baina nik uste dut ondorio bat izan daitekeela, oso gertuko pertsonak zirela. Aitzolen figura hartuta, nik uste, hortik doala nola Lotsatik egin zuen sarrera euskal literaturan. Kontuan hartuta, hasi zenean, gaztetxo zela. 19-20 urterekin

egin zuen sarrera. Euskal komunikabideetan agertzen hil baino 5-6 hilabete lehenago hasi zen agertzen. Ia astero idatzen zuen gaztea zen. Segurasko norbaiten laguntza izango zuen eta nik uste dut Aitzol izango zela.

Garaiko beste idazleren batekin harremanik izan ote zuen aztarnarik ba al dago?

Susmoa badago. Bere izenarekin agertzen den azkeneko olerkia, Bernardo Garrok jaso zuen. Horrek esan nahi du Lotsati hasia zegoela ezaguna izaten beste idazleen artean. Oso gauza txikia da, arrasto txiki bat. Baina ematen du lortu zuela ezaguna egitea. Bazirudien bere lekutxo egiten ari zela baina bide horretan hil egin zen.

Nolakoa da Lotsatiren poesia?

Garapena izan du. Hasi zenean, betiko garaiko topikoez idatzen zuen. Bera familia abertzaleko semea zen, burgesiako semea, katolikoa... hasierako olerkietan hori guztia agertzen da. Alderik topikoenetatik abiatu zen. Baina hor badago garapentxo bat eta hori da bere olerkigintzari dagokionez gauzarik azpimarragarriena: amodiozko olerkiranzko saltoa egin zuen eta nola amodiozko olerki horietan islatu zuen bere barne mina. Alde hori da deigarriena. Hori da garaiko beste idazleengandik gehiena bereizten duena. Amodioaren tramendu hori da

Amodioaren tramendu hori da
ezberdina. Amodioa, minez
tratitzen zuen.

Nire hipotesia da, bere barne
egoerak idaztera bultzatu zuela.

Ez zen alderantzizko
gauza bat izan.



ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

ezberdina. Amodioa, minez tratatzen zuen. Eta nik botatzen dudana hipotesia da, bere barne egoerak idaztera bultzatu zuela. Ez zen alderantzizko gauza bat izan. Beharbada hasieran bai: oso giro euskaltzalean mugitzen zen, euskara eta euskal kultura bazituen helburu, baina nik uste dut gerora, barne min horrek bultzatu zuela idaztera idatzi zuen moduan. Tamalgarria da bide horretan hiltzea. Ez dakigu zelangoa izango zen Lotsati segitu izan balu.

Euskal literaturan, poesian lekutxo bat irabazia badu beraz.

Bai. Batez ere Errepublika garaiko euskal literaturaz askotan esaten diren gauzak, ez ditugu oraindik oso zehaztuta. Hor baditugu idazle handiak, Lauaxeta, Lizardi, Orixe... horietaz asko idatzi izan da baina handien parean txikiak daude eta txikiak betetzen dute atzealdea. Handien irakurleak izaten ziren. Beraz, haien artean bazen harremana. Animatzen ziren gazteak idazle handien irakurleak ziren. Lotsatik irakurtzen zituen bes-teen lanak. Esaten da, garai hartan, idazle handi hauek salbuespena zirela, ez zegoela mugimendu bat horren inguruan, ez zegoela sare bat eratuta... Baina nire iritzian hori ez da horrela: sarea ahula zen, baina zerbait bazegoen eta hauek betetzen dute zeregin hori. Honek balio digu garaiko literaturaren zerak osatzen joateko.

Beste gauza bat azpimarratzearren, gauza xume bat besterik ez bada ere: zer garrantzia duen oroimena berreskuratzek! Honekin Lotsati bere lekuan uzten dugu eta hori uste dut oraindik askorekin egin beharko genukeen gauza dela, inportantea izan ala ez izan. Uste dut gure oroimenaren parte izan behar direla.

Ezustekorik aurkitu al duzu?

Neurri batean bai. Lotsati bera oso literarioa da. Lanaren aldetik ez da izan baina zabaltzen du erdi ahaztuta izan dugun garai bat. Garai horretaz asko idatzi arren, azken urteotan, mesfidantza izan da, asko baloratzen ezer ere ez baloratzera pasatu gara. Aurreritzi asko ibili izan dira beste urte batzuetan. Oso sabinista zela, idazleek erabiltzen zuten euskara ez zela ulertzen... Desprestigiatu eginda zertxobait garai hartako literatura. Nik uste dut, oso garai garrantzitsua izan zela. Horrelakoak ondo datoz garai hura gogoratzeko.

Euskara aldetik aztertu al duzu Lotsati?

Lotsatik, oso sabinista izan nahi du baina herrikoia goaren arteko tarte batean dabil. Nik uste dut horretan baduela Aitzolen eragina. Aitzol herri hizkeraren aldekoa zen eta zenbaitetan Goierriko euskara hutsez idatzitako olerkiak dira, beste batzuetan berriz, neologismoak sartzen ditu. Argi eta garbi, idazle sabinianoa da, ideologiaz eta hizkeraz, baina ez da beste batzuk bezain iluna. Herri hizkerara hurbiltzen da. Nahiko sinplea idazten zuen, mezua argi eta garbi azaldu nahi zuelako.

Ai, etorriko balitz, etorriko balitz!

Mendian nabil
Bakar bakarrik
Eta triste tristerik.
Inun entzuten ez det
Ixtilurik
Ez garraxirik
Eta deskansaturik
Edertasun asko gozaturik
Nere sentsuak doazte bizkortuz,
Ankak berriz gogortuz,
Ta besoak indartuz.
¡Bañan biotzaren naigabea
Bere bakartasun ta utsunea!

¡Ai! orain etorriko balitz
Gipuzkoa'ko erri batean
Eta nik ezagutzen dedan
Baserri txuri-gorrixka artan
Bizi dan neska ederra.
¡Ai! etorriko balitz, etorriko balitz,
Zenbat egingo giñuken itz!
Trunko eder ontan
Etixeriaziko nuke
Ni berriz bere aldamenean
Entzuten egongo nitzayoke,
Ezin aspertuz,
Gustora, gustora,
Begira ebre abora,
Bere begi urdiñera,
Bere arpegi zurira...
Eta iurtziz leunki
Eskuakin zorunki
Ta maiteki maiteki
Bere urrezko uledia
Ta arrosazko aurpegia.
¡Ai! etorriko balitz, etorriko balitz,
Zenbat egingo giñuken itz!

El Día, 1935-XII-18

Gurutz Sarasolaren olerkiak ondoko webgunean
azaltzen dira:

<http://www.armiarma.com/emailuak/lotsati/>



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Xabier Anuntzibai ‘Xtrm’:

“Kalean hasi nintzen
graffitiak egiten
eta kalean ikasi dut
margotzen”

B easaindarra Xabier Anuntzibai. 24 urte ditu. Kalean
spraiekin graffitiak egitetik hasi eta orain estudioan ari
da pintura akrilikoarekin lanean, egurrean nahiz
mihisean. Bi urte lanen erakusketa dauka egun hauetan
Ordiziako Barrenan. Arkitekto teknikoa, aparejadorea, ikasketaz.

	biok zerbitzuak	kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala
Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Urdaneta, 7		

	943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info
Goierritarra aldizkaria	

	ANDRAITZ <i>Fisioterapia Zentroa</i>
Naiara Gómez Larrea Kol.zkia.: 1466	
Errehabilitazioa <i>Masaje terapeutikoa</i> <i>Kirol masajeak</i> <i>Lunbalgiak eta ziatalgia</i> <i>Drenaje linfatikoa</i> <i>Kinesiologia</i>	
Orduetgia: astehentik ostiralera 9:00 - 13:00 15:00 - 20:00	
Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32	

Beasaingo kaleetako hainbat graffiti edo artelanetan Xtrm izena ikusten dugu. Xabier Anuntzibai beasaindarra dago izen horren atzean. 14-15 urte zituela utzi zuen Xtrm-ek bere lehenengo arrastoa. Xtrem izena idatzi zuten bi lagunak artean. "Etxe ondoko parkean egin nuen, lehenengo egin zuten skate parkean. Orain botata dago. Hasiera hor izan zen", dio Anuntzibaiak.

Pinturarako zaletasuna txiki-txikitatik izan du beasaindarrak. "Gazte-gaztetan, Jokin Telleriarekin marrazketa ikastera joan nintzen baina arkatzetik ez nintzen pasatu. 14-15 urterekin hasi nintzen kalean margotzen lagunekin".

Kalea izan da Anuntzibaiaren eskola. "Margotzen, kalean hasi nintzen eta kalean ikasi dut. Estudioan, gauzak depuratzen joaten zara eta kalean hartu dudak oinarria sakontzen. Baina nik berez margotzen, kalean ikasi dut. Egin, ikusi eta ikasi. Azkenean, ikusi eta ikasi izan da", gaineratu du.

Denborarekin dena den, kaletik estudioara eraman du bere artea. Spray-ak zertxobait alde batera utzi eta batez ere pintura akrilikoarekin lan egiten du Anuntzibaiak, egurrean nahiz mihisean. "Azkenaldian ez dut askorik margotzen Beasainen. Baina bai, bolada batean margotu nuen herriko paretetan. Orain, graffitiak zertxobait utzi eta estudioan ordu asko sartzen ditut. Kalean denbora gutxiago eskaintzen diot eta Beasaini oraindik gutxiago.

Normalean Beasaindik kanpo margotzen dut. Baina gauza batekin hasten zara, gero koa-droekin hasi, gero bideoarekin probatzen hasi nahi duzu... harrapatzen zaituen bola bat da. Gero eta gauza gehiago ikasi nahi dituzu, zure posibilitateak gero eta zabalagoak izatea, ez mugatzea bakarrik pinturara. Geroztik eta gauza berri gehiago ikusten duzu eta beti daukazu burua martxan", zehaztu du.

Graffitiak?

Graffiti hitza badarabilkigu ere, Anuntzibairentzat, graffiti-rik ez da existitzen gaur egun. "Graffiti ez da existitzen. Graffiti hasiera batean, letra ilegal horiek ziren, izena ahal zen leku zailenetan idaztea. Mugimendu hori zen. Ikuspegi asko dago, pertsona bakoitzak bere ikuspegia dauka. Gaur egungo nire ustez beste gauza bat da, ez da graffiti. Eboluzio bat, mutazio bat... kaleko artea edo beste era batera deitu diezaiokegu".

Graffitiaren jatorriaren araberak, garai batean, izkutuan egiten ziren marrazkiak, gauean askotan, leku berezietan, trenetan... "Gauzak aldatu egin dira denborarekin eta eboluzionatzen joan da. Bilatzen dena ere gehiago da. Lehen izena leku zailetan, jendeak ikusi zezan... izaten zen helburua. Gaur egun, kalean margotzen duzunean, ez daukazu horrelako ikuspunturik izan beharrik. Askotan izenari ez zaio garrantzirik ematen, baizik



"Zaila da inguruan Beasain bezalako beste herri bat aurkitzea"

Goi mailako bi graffiti-gile zaudete gainera Beasainen, Igor Rezola eta zu zeu.

Dizebi Bilbon ikasten ari da. Ni ere erakusketekin nahiko lanpetuta nabil, eta Beasainen ez da orain hainbeste lan berri ikusten. Kalean gauza gutxiago ikusten dira.

Beasaingo kaleak artez beteta daude.

Zaila da horrelako beste herri bat aurkitzea. Goierri guztian behintzat ez dago eta Gipuzkoan ere asko ez dira izango.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasosores.com

Paperetik paretera

Nola egiten da graffiti bat. Aurrez marrazkitxoren bat prestatuta eramaten duzue, inprobisatu egiten duzue...

Marrazki bat prestatzen dut, edo marrazki pilo batekin joaten naiz eta momentuan gehiena egiteko gogo daukadana edo paretaren arabera hobeto geratu daitekeena aukeratzen dut. Eta listo, hori egiten dut. Besterik gabe, ezer gabe joan pareta aurrera eta marraztu ere bai. Baina normalean marrazkiren bat eramaten dut prestatuta. Marrazki bat, ideia bat, besterik ez.

Lehen gehiago prestatzen nituen gauzak. Argazkiekin lana egiten nuen. Orain, badira 2-3 urte inguru, argazkiak erabiltzeari utzi niola. Aspertu nintzen eta orain nahiago dut nire marrazkia egitea edo inprobisatzea.

Papertxo batetik pareta handi batera eramatea...

Hori praktika kontua da azkenean. Begia egin egiten da neurrira eta ikasi egiten duzu gauzak ondo enkudratzen. Praktika da, dena bezala.

Spraya erabiltzen duzue ezta?

Aukera asko ematen ditu. Oso maneagarria da. Kolore pilo bat erabili ditzakezu... Sprayarekin askoz ere azkarrago egiten da. Hasieran kostatu egiten da pixka bat sprayaren erabilera ikastea, teknikoki ondo maneiatzea baina behin ondo hartu diozunean, kalean margotzeko oso egokia da. Donostian erosten ditugu. Nahi adina kolore dago. Gu hemen ohituta gaude koloreen abaniko zabala edukitzen baina Txilera iritsi ginenean, 20 kolore zeuden eta denak oso kolore indartsuak. Erronka bat izan zen, hain material gutxi-rekin lan egitea Bere alde polita ere badu. Ikusten zenuen, txiletarrak dituzten teknikak koloreak nahasteko. Interesgarria da, errekurtsu gutxi daukazunean nola konpontzen den jendea eta zein truko asmatzen dituen kolore gehiago lortzeko. Interesgarria.



egiten duzun muralari. Gaur egun erabiltzen den hitz bat da graffiti baina nik uste dut benetan hori bukatu zela. Gaur egun beste gauza bat da", zehaztu du beasaingarriak.

Artelan ederrak ikus daitezke Beasaingo kaleetan. Koadro handiak bailiran. "Hemengo estiloa, gehiena ikusi dena, pareta osoak margotzea izan da. Baina ez dauka zertan, pareta guztia margotu eta koadro handi bat izango balitz bezala. Badago jendea, pareta handi batean, detaile txiki bat egiten duena eta detaile txiki horretan bakarrik fijatzen zara. Bakoitzak bere rolloa dauka".

Anuntzibai bera ere bere estiloa garatzen joan da. Lehenengo egindako graffiti

hura ezin du ikusi baina poz-tuko litzatekeela dio. "Pena da, poztuko nintzateke ikustea hasierako lan hura, konparatzeko, eboluzioa ikusteko. Historia ezabatzen baduzu, nondik zatozen ez duzu ikusten. Horregatik gustatzen zait egiten dudanaren argazkiak edukitzea. Atzera begiratu dezakezu, zure ibilbidea ikusi dezakezu".

Duela 10 urte sortu zuen izenari eutsi egiten dio beasaingarriak. "Ez naiz gogoratzen ere nola izan zen. Egia esan, jendeak ni, Xabi bezala ezagutzen nau. Xtrm jartzen dut paretetan eta hori gelditu da 14 urteko garai hartatik. Orain jarriko ez nukeen izen bat da baina iruditzen zait, polita dela, gogoratzea nondik hasi zen dena. Izen horre-

kin hasi zen dena eta horren omenez, izen hori gordetzen dut eta suposatzen dut gordeko dudala".

Garapena

14-15 urteko jolas batetik, pinturatik bizitzera iritsi da Anuntzibai. Arkitekto tekniko ikasketak egin baditu ere, pinturari serio heldu dio. "Ez dut oraingoz aparajedore bezala lanik egin. Margoarekin gauzak ondo doazkit. Urte erdian prebentzio teknikari bezala lanean aritu naiz baina orain berriro pinturarekin nabil. Gauzak bata bestearen atzetik ateratzen joaten zaizkit eta ondo doan bitartean hor gelditzen naiz".

Enkarguzko lanak ere egiten ditu. Muralak, etxeetan,

tabernetan, negozio ezberdinetan, Ordiziako eta Beasaingo udaletxeetatik ere lanen bat eskatu izan diote. "Noizbehinka ateratzen dira lanak. Ondo etortzen da, diru pixka bat ateratzeko, bai kalean, bai estudioan lan egiteak gastua daukalako. Materiala erosteko ondo etortzen da noizbehinka horrelako lanen bat ateratzea".

Denboran atzera eginez, honako galdera hau egin diogu beasaingarriari: aurreneko aldiz xtrm izena idatzi zenuenean, udaletxetik lana enkargatuko zizutela burutik pasatu al zitzaizun? Garbia izan da erantzuna: "ez, ez! Garai hartan horrelako gauzetan pentsatu ere ez. Burutik pasatu ere ez. Orain dela bi urte ere ez nuen pentsatuko

Erakusketa Ordizian

Ordiziako Barrenan, apirilaren 30era arte ikusgai izango da Anuntzibairen 'Aupa hi! Banetorrek' erakusketa.

Zer ikus daiteke 'Aupa hi! Banetorrek' erakusketan?

Estudioan margotutako koadroen bilduma da. Azkeneko bi urteotan egin ditudan lan ezberdinen errepresentazio txiki bat da. Lanak egurrean, lienzoan, marrazkiak... estilo ezberdinetako gauzak daude. Azken bi urteotan estudioan egin dudan lana erakustea da.

Spraya erabiltzen al duzu zure estudioko lanetan ere?

Estudioko lanean, lehen spray gehiago erabiltzen nuen, baina orain akrilikoekin saiatzen naiz dena egin.



Txilera joango nintzenik erakusketak egitera. Gauza pilo bat daude imajinatu ere egin ez dituzunak eta orain lortzen ari garenak”.

Ekinaren ekinaz emaitzak lortzen ari da Anuntzibai. “Lana eginez, egindako lanean ondorio bezala ari dira gauzak ateratzen, geroz eta gehiago gainera. Eta bidaiatzeko aukera ere ari naiz izaten honen kontura eta egia esan, hori da nik nahi nuena: pinturaren kontura bidaiatu ahal izatea”.

Txilen eta Italian

Pinturaren aitzakian, bidaiatzeko aukera izan du azkenaldian Anuntzibaik. Beste erreallitate batzuk ezagutzeko aukera izan du. “Txileko kasuan, adibidez, grazia egin zidan graffitiaren gaiak. Orain dela 10 urteko hemengo egoera dago Txilen. Duela 10 urte graffitiari buruz zeuden pentsakerak, eztabaidak,

ikuspuntuak daude. Interesgarria izan zen. Jendea gogo handiarekin ikusten da eta horrek asko poztu nau. Jende asko dabil gainera. Hemen azkenean oso jende gutxi gabilza. Hara joan eta koadrila mordoa zegoen, beraiekin margotzera gonbidatzen gintuzten... Zoragarria izan zen”.

Italian bestelako egoera aurkitu du, hemengoarekin ere zerikusirik ez duena. “Italian urte erdia egon nintzen bizitzen eta talde bat badaukat. Urtean pare bat aldiz joaten naiz, bisitan eta margotzera. Hango egoera ere, hemengoarekin alderatuta, ezberdina da: Italia Iparraldean behintzat, ez da gehiegi margotzen paretetan. Baimenekin-eta arazoak izan daitezkeela eta, jendeak baimenik ez badauka, oso zaila da egunez margotzen jartzea. Gauez bai. Baina beste aldeetik, erakusketa pilo bat dago. Askok. Jendeak erakusketetan

margotzen du. Kalean ez dute margotzen beraiein kasa, baina erakusketaz erakusketa ibiltzen dira margotzen. Horrek ere bidaiatzeko aukera ematen diete, behin izena hartuz gero behintzat”.

Dena den, beasaindarrak aitortu duenez, “nik nahiago dut kalean nire kontura margotzea, erakusketetan margotzea baino. Baina beraiek esaten dute, kalean baimenik gabe margotzeak, arazo asko ekar diezaikeela. Ez dira asko ausartzen direnak”.

Hemengo baimen eta arauetz galdetuta, honela erantzun digu: “ideiarik ere ez daukat, egia esan. Pareta bat hartu eta margotu egiten dugu eta horrela jarraitzeko intentzioa daukagu, jaleo handiren bat izan arte behintzat. Duela gutxi Baionan izan ginen eta han ere margotu egin genuen. Jabea etorri zitzaigun, zer ari ginen, oiher batzuk bota baina azkenean

ezer ere ez. Duela pare bat hilabete Riojan izan ginen... Azkenean animatu eta egitea da. Jabea etortzen bada, hitz egin, konpondu eta listo”.

Taldean nahiago

Bakarka baino taldea nahiago du margotzea Anuntzibaik. “Saiatzen naiz jendearekin elkartzen margotzera joateko. Bakarrik margotzeaz aspertu egin naiz pixka bat. Baina ez da erraza jende asko bilatzea”.

Artista bakoitzak bere estilo izaten duenez, talde lanean estilo ezberdinak uztartzea ez dela erraza dio. “Ez da erraza, baina saiatzen gara. Azkenean, dena bezala, praktikarekin lortzen da. Pertsona geroz eta gehiago ezagutu, geroz eta hobeto egingo duzu lana berarekin. Hasieran zailxeagoa da estilo ezberdinak konbinatzea, baina gero joaten dira gauza kuriosoak ateratzen”.

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

☎ **943 18 01 19** **ATAUN**

Pottoka

KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Txindoki-Alkartasuna
Institutua



B a t x i l e r g o g u z t i e n k

ARTE BATXILERGOA

**BATXILE
IKAS
BATZ
INGEL
EG
DAITE**

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA

ATE IRE

Apirilare

18:30

a u r r e m a t r i k u l a e p e a :

Ugartemendi, 6. 20200 Beasain



Telf. 943-880753




kalitatezko eskaintza

ERGOA:
SGAI
ZUK
LESEZ
GIN
EZKE



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA

REKIAK
en 26an
0etan



maiazaren 3tik 12ra
www.txindokialkartasuna.net

Endika Igartzabal Murua

Osinalde lehiaketan parte hatuko du
bertsolari gabiriarrak



Apirilaren 24an, iluntzeko 8,30etan, Ordiziako Argi Berri sariketan du hitzordua Endika Igartzabalek. Azken orduan jakin dugunez, Gorka Maiz ere izango da. Gabiriako Osinalde txapelketarako txartela lortzen saiatuko dira gabiriarrak. Julen Agirre eta Ainhoa Mujika beasaindarrak, dagoeneko lortua daukate, maiatzaren 8an jokatu den Osinalde lehiaketarako txartela. 18 urte ditu Edika Igartzabalek eta Ingenieritza Mekanikoa ikasten ari da.

Igartzabal Murua zara abizenez. Gabiriako bi bertsolariren iloba zara. Geneetan ere izango duzu bertsolaritzaren arrastoren bat.

Esaten didate Igartzabal Murua izanda, hik ez baduk egiten bertsotan! Baina mikrofonoaren aurrean jarritakoan horrek ez du balio. Bakoitzak berea egin behar du.

Bertso giroa biziko zenuen etxean. Osaben saioetara joaten al zinen?

Bertso saioetara joaten, bertso eskolan hasi ondoren hasi nitzen. Bertso giroa familian beti izan dut. Nire amari asko gustatzen zaio, amonari ere bai... Osinalde egiten dela urte mordoxka bat da eta ni txiki-txikitatik beti joan izan naiz finala ikustera. Gehienbat gurasoak beti joaten zirelako edo afaria prestatzera, zerbitzatza... horrek ere eragingo zuen zaletasunean. Herrian ere, orokorrean, giro horixe dago. Jendeari gustatzen zaio bertsolaritza. Aurreko Euskal Herriko Bertsolari Txapeketako finalera 20 lagun pasa joan ginen Gabiriatik. Hori ez da egun bateko gauza bakarrik, horrek esan nahi du bertsolaritza gustatzen zaiola eta horrek erakusten du badagoela bertsotarako giroa.

Bertso giroa daukazue Gabirian.

Esan daiteke, Gabiria herri bertsozalea dela. Ia 500 biztanle dauzka, eta Osinaldeko finala, festetako bertso saioa, beste saioen bat ere izaten da, Aberri Eguna, Jubilatu eguna... bertsoak izaten dira. Jendeari gustatzen zaio eta antzematen da gustatu egiten zaiola.

Beste bertsolari belaunaldi bat sortu da Gabirian?

Eusebio Igartzabalek eta Iñaki Muruak hor jarraitzen dute baina beste belaunaldi bat ere sortu da bai.

Zu zeu, noiz hasi zinen bertsotan?

13 urterekin hasi nintzen bertso-eskolan. Urtebete, idatzizko taldean egin nuen Bixente Gorostidirekin eta hurrengo urtean, bat-bateko taldera pasatu nintzen, Aitor Sarriegirekin. Herrian baziren beste pare bat bertso eskolan ibilitakoak, beste batzuei ere gustatzen zitzaion... elkarri burua berotu eta horrelaxe aterata ginen 'Atera'-n.

'Atera' eta 'Martxoan bertsoa' txapelketetan taldean aritu zara, baina orain, bakarka aritu beharko duzu.

Serioago. Hemen ez dago talderik. Osinalden ateratzen naizen lehenengo aldia da. Azpeitin bi urtean behin antolatzen den Erriarrait txapelketan parte hartzeko aukera izan nuen, eta hau

bigarren txapelketa dela esan dezaket.

Aurten arte, Osinalden izan zara, antolaketa lanean, eta aurten, aukera izan dezakezu, sei bertsolarietako bat izateko.

Garbi utzi behar da, lehenengo saioa Ordizian daukadala eta hara joan beharra dago lehenengo gero hona etortzeko. Ni berdin-berdin etorriko naiz ikustera, baina Ordizian dago hemen kantatzeko bidea. Aukera polita da. Herrian txikitatik ikusi dugun leku bat, Osinalde. Gainera bere izena daukan txapelketa da eta final batean kantatzea izugarria izango litzateke.

Bertso afariaren bueltan jokatzen den sariketa izaten da bai Osinalde eta aurretik egiten diren beste sariketak ere. Formato polita al da?

Nik askoz ere nahiago dut bertso-afaria. 20-30 saio egin badituz, erdiak baino dezente gehiago, afalondorearen bueltan egindakoak dira. Beste lasaitasun bat da. Ez da beste saio batzutan bezala, eszenatokira atera eta bat-batean hasi behar duzula. Bertso-afarian, lasai eseri, lekua eta giroa ikusi... beste lasaitasun bat da. Askoz ere nahiago dut. Osinaldeko finala, plaza fijo da. Izugarritzko giroa egoten da, goraino beteta egoten da.

Duela urte batzuk arte, Osinalde sariketa saio bakarrera jokatzen zen. Orain aurretik, kanporaketak jokatzen dira, seina bertsolarirekin.

Hiru kanporaketa izaten dira orain. Zenbat eta jende gehiago irten, hobe da. Zenbat eta gehiago irten, onenak iritsiko dira finalera. Horrek ematen dio bere puntu bat Osinalderi. Ez dira etortzen aukeratutako bertsolariak, aurretik selekzioa egiten da eta hori gauza ona da.

Izen handia duten bertsolariek irabazi edo parte hartu izan duten sariketa da Osinalde.

Goierritarren artean, Aitor Sarriegik, Zubeldiak, Urdangarinek eta Apalategik irabazita daukate... Aitor Sarriegiren kasuan, duela urte batzuk Osinalde irabazi zuena, iaz Euskal Herriko finalean izan zen. Nik uste dut, horrek asko esan nahi duela. Maialenek berak ere irabazita dauka.

Aurtengo sariketetan gainera, hiru goierritar

aritutako zarete. Zurekin batera, Julen Agirre eta Ainhoa Mujika beasaindarrak eta Gorka Maiz gabiriarrak aritutako dira. Kanporaketa banatan zaudetenez, hiruok izango duzue Osinaldeko finalean kantatzeko aukera.

Esaten didate Igartzabal Murua izanda, hik ez baduk egiten bertsotan!

Baina mikrofonoaren aurrean jarritakoan horrek ez du balio. Bakoitzak berea egin behar du.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ


Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate





Di da

Bertsolari bat:

Amets Arzallus.

Plaza bat:

Gustatuko litzaidakena, Osinalde, dudarik gabe! Askok gustatu zaidan plaza bat? 'Martxo Bertsoa' txapelketan izugarrizko giroa egoten da. Tabernetan izaten dira eta gertutasun handia egoten da. Askok gustatzen zait.

Bertso afari baterako lagun bat:

Gehienetan Gorka Maizekin ibiltzen naiz eta berarekin oso gustura aritzen naiz, hainbeste denboran elkarrekin, hasterako badakit nondik joango den, berak ere bai ni... nahiko konpenetratuta ibiltzen gara.

Zaletasun bat:

Gaztea izanik, beti gustatu izan zait, soziedadean bertan afaritxo batzuk egin, parrandara irten... Txiki-txikia nintzenetik rallysprinta egin izan da Gabirian eta mundu hori ere gustatzen zait.

Urte batzutan hutsune bat egon da, aurten lau! Aukera denak daude baina... Polita izango zen, aspaldiko partez, lau goierri-tar izatea finalean.

Goierri beraz badatatz bertsolari berriak.

Osinalde sariketan beharbada egon da bajualdi bat goierri-tarren aldetik, baina nik uste dut bertsolaritza munduan nahiko ondo eutsi duela.

Kontatu diguzu, orain arte, Osinalde zer izan den zuretzat. Eta aurten, zer izango da?

Aurten guztiz diferentea da. Orain arte, kanpotik bai, baina aldi berean barrutik bizitzea tokatu zait. Gaiak jartzeko 7-8 lagun bat elkartzen ginen, afaria zerbitzen ere gure jirako jendea ibili da, afaria prestatzen gurasoak... alde horretatik barrutik bizi izan dut, baina saioa kanpotik, eta lasai. Aurten ezberdina izango da. Barru-barrutik biziko dut. Eguna gerturatu arte lasai gaude. Egongo da astia urduri jartze-ko.

Erraza al da gaiak jartzea?

Talde bat elkartzen gara. Luze jotzen du. Gai asko jarri behar dira, gauza askori begiratu behar izaten zaie... Ez da bertso saio normal bat bezala, edozein gai jarri daitekeela, gai zehatz bat

bertsolari jakin bati jarri... Txapelketa den aldetik, saiatu beharra dago, denei gai igualtsuak jartzen eta bide igualtsuak ematen. Hori izaten da zailena. Bati ezin diozu jarri oso gai irekia eta beste bati, oso gai itxia.

Gai itxiagoak ala irekiagoak nahiago dituzu?

Nik gai itxi bat nahiago dut beharbada, errazago egiten zaidalako.

Zein gai mota gustatzen zaizu?

Gu, normalean, umore aldetik aritzen gara. Baina denetik dago egin beharra. Umorean edo serioan gehiegi ohitzea beti da txarra. Azkenean, mota guztietako gaiei kanta-tzea tokatuko zaizu. Baina parean tokatzen dena dago egin beharra.

Neurriak ere, motzagoak

edo luzeagoak.

Ez naiz ni neurri luze zalea. Baina tokatzen denean, egin egin behar da.

Sariketa honetan zein duzu helburua?

Nik, helburua, beti, ondo pasatzea izaten dut. Osinalden oraindik eta gehiago. Nik uste dut niretzat kalte izango zela herrian txapelketa batean gaizki pasatzea. Nahiago dut, saio polit bat egin, eta ni neroni gustura geratu. Finalera ez bagara pasatzen

Nik, helburua, beti,
ondo pasatzea izaten dut.
Osinalden oraindik eta
gehiago.

Ateratik ateratakoak

Goierriko Bertso Eskolaren 25. urteurrena ospatu zenean, herri arteko 'Atera' txapelketa antolatu zuen eta emaitzak ematen ari da oraindik ere. Gabiria da horren lekuko.

"Ostegunetan gelditzen gara elkartean bertan koadrilako bost bat lagun. 'Atera' herri arteko txapelketa lau bat lagun apuntatu ginen eta hortik hasi ginen", dio Endika Igartzabalek.

Beste urrats bat ere eman dute eta Urretxun jokatzeko den 'Martxoan bertsoa' lehiaketan ere hartu du parte Gabiriako taldeak. "Ematen du, urte batean egin zela eta harrezkerotik ez dela ezertxo ere egin, baina Gabirian behintzat iraun egiten du. Ateran animatu ginenaz aparte, beste pare bat ere gerturatu dira eta Urretxun egiten den 'Martxoan bertsoa' txapelketara joaten gara. Gabiriako 7 pertsona atera gara eta hori Gabirirako asko da".

Taldeko lanaz gain, bakarka aritzen diren bi ere badaude Gabiriako taldean: Endika bera eta Gorka Maiz. "Gorka Maiz ere aritzen da. Saioren bat edo beste egin dugu. Nonbaitera bertso-tara joateko esaten digutenean, normalean biok joaten gara", adierazi du Igartzabalek.



ez da ezer pasatzen, eta hurrengo urtean saiatu beharko gara.

Afaria zerbitzatzen egongo zara beharbada.

Eta gustura gainera!

Osinaldeko txartela lortzea zer da, ametsa, zaila, ezinezkoa, posiblea?

Ezinezkoa ez al da izango! Kanporaketa bakoitzetik, seitik bi pasatzen dira. Aukerak badaude. Erraza? Zaila? Iruditzen zait zaila izango dela. Baina han gauden heinean, saio hasi aurretik, aukerak badauzkagu, beste denek adina. Hori bai, zaila dago.

Osinaldeko txapela irabaziko bazenu, nori eskainiko zenioke txapela?

Aukera eman didatenei emango nizkieke eskerrak. Euskal Herri mailan izaten da Osinalde eta ni bezala beste mordo bat daude ni adinean, edo ni baino hobeto egingo luketenak. Baina niri eman didate aukera eta horiei emango nizkieke eskerrak.

Bertsolari bezala, noraino iristea gustatuko litzaizuke?

Oraindik ez dut horrelako ezer ere pentsatu. Orain nabilen erritmoan eta inguruan gustura nabil. Eskolartekoa iaz bukatu nuen, eta Eskolartekoa bukatu eta lehenengo urtean bi txapelketa jokatu, ez dago gehiago eskatzerik. Badago jendea,

Eskolartekoan ondo ibili eta bi urtean batere txapelketarik jokatu ez duena. Ni, alde horretatik pribilegiatua naiz. Hortik aurrera? Ikusiko da.

Jarraitzeko aukera eman dizue beraz.

Eta hori ona da. Hortxe segituko dut. Lagunartea ere ona daukagu eta horrek ere asko egiten du. Momentuan ez daukat mugarik.

Bertsotan gozatu egiten al duzu?

Bai, baina gaizki pasatzea ere tokatu zait. Ni asmo horrekin joaten naiz behintzat. Ahal dudanean gozatzen saiatzen naiz. Norbera gustura aritzea denontzako da positiboa.

Euskal Herriko txapelketako finala zer iruditu zitzaizun?

Hura beste maila bat da. Urte askotako lana dago. Pentsa Aitor Sarriegi noiz hasi zen bertsotan. Ume-umetan hasiko zen. Osinaldeko saria uste dut 16-17 urterekin irabazi zuela. Eta pentsa zenbat urte beranduago iritsi den finalera. Urte askotako gauza da horra ailegatzea. Nik oraindik 18 urte ditut eta hori imajinatzea ez zait logikoa iruditzen. Ni hasi besterik ez naiz egin. Beharbada hemendik urte batzutura nazkatu egingo naiz, edo oso gustura arituko naiz eta segü egingo dut, edo ez dakit... ez dago jakiterik.



txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA




ibaiondo
altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

Mikel Pajares,
Eñaut Araneta,
Asier Gandarias
eta Kepa Uranga
lazkaotarrek osatzen
dute musika taldea



Kexa

A azkaotarrak dira Eñaut Araneta
(gitarra eta koruak),
Mikel Pajares (baxua eta koruak),
Asier Gandarias (bateria) eta
Kepa Uranga (gitarra eta ahotsa).
17 urte dituzte. Kexa taldea osatzen dute.
Beste taldeen bertsioak joaz hasi baziren
ere, Kepa Uranga taldekidea abestiak
egitera ausartu eta dagoeneko lehenengo
maketa kalean dute; lau kantuz osatua.
Kantu berri gehiago ere badituzte.
Lazkaon, festetan, apirilaren 23an,
kontzertua eskainiko dute.

Nolatan sortu zenuten Kexa taldea?

Asier Gandarias: Bakoitza bere aldetik ari ginen musika ikasten. Nik bateria erosi behar nuela eta Udalari lokal bat eskatzea pentsatu genuen, denok batera jotzeko eta industrialdean loka-la utzi ziguten. Hasieran beste musika taldeen bertsioak jotzen hasi ginen: Nirvana, Gatibu.... Gero gure kantak egiten hasi ginen. Hasierako abesti haiek Kepak egin zituen.

Udan, uztailan, maketa bat grabatu genuen. Grabatzerakoan, Mikel sartu zen taldean.

Abestiak egitea erraza izan al da?

Eñaut Araneta: Kepa bere kontura kanturik egiten hasi zen. Erakutsi egin zizkigun, gustatu eta jotzen hasi ginen. Lau abesti atera zituen. Fredi Pelaez laguna dugu eta bere bitartez lau abestiko maketa grabatu genuen.

Kepa Uranga: Lehenengo abestia, gaixo nengoelako Ikastolara joan gabe gelditu nintzenean egin nuen. Aspertuta nengoen eta gitarra akustikoa jotzen hasi nintzen. Akorde batzuk atera zitzaizkidan, pixkanaka ahotsa jartzen joan nintzen, letra...

Eñaut Araneta: Guk ez genion askorik lagundu, berak egin zuen dena.

K, E, X eta A

Kexa izena du zuen taldeak. Kexatzeko arrazoi asko daukazue?

Eñaut Araneta: Izen bat jarri nahi genion, maketa izenik gabe edukitzea ez zitzaigulako egokia iruditzen. Ikastolan pentsatzen aritu ginen eta hasieran ingeleseko izen bat jarri genuen baina gero konturatu ginen, interneten, izen berdineko talde bat baze-goela. Kepak, Kexa proposatu zuen. Taldeko partaideen izen eta goitizenen hasierako letrekin osatu genuen. Mikel sartu zenean, izen berarekin jarraitzea erabaki genuen.

Zailena aurrenekoa izan zen beraz.

Mikel Pajares: Sortzen jarri gabe geunden. Akorderen batzuk atera bai baina ahotsa jarri gabe.

Kepa Uranga: Akorde batzuk atera nituen, gustatu egin zitzaizkidan eta grabatu egin nituen. Aitari erakutsi nion, gustatu zitzaion eta taldekideei erakutsi nien.

Eñaut Araneta: Guri ere gustatu zitzaigun eta aurrera.

Musikari hitzak jartzen zer moduz moldatu zarete?

Kepa Uranga: Hasiera ematea da zaila niretzat. Hastea eta zeri buruz hitz egin nahi duzun jakitea. Behin hasiz gero, bi lerro egindakoan, bakarrik joaten da. Gaia erabaki bai, baina askotan ez dakizu nondik heldu.

Zein gai aukeratu dituzue?

Kepa Uranga: Bi amodiozko kantu dira, munduko egoerari buruz, eta bestea, gure taldea nola sortu zen.

Abesti berriak egin al dituzue?

Bai, Eñaut dagoeneko abesti gehiago baditugu, eta gehiago sortzeko asmoa ere bai. Abesti guztiekin beste maketa bat grabatzeko asmoa daukagu.

Keparen lana al da kanturik egitea, zuek ez al zarete animatzen?

Asier Gandarias: Eñautek atera zuen bat.

Maketa bat grabatu duzue dagoeneko. Zer moduzko esperientzia izan zen estudiokoa?

Mikel Pajares: Izugarritzko esperientzia ona izan da.

Asier Gandarias: Gauez grabatu genuen. Hasieran izututa ere bageunden, baina berehala sentitu ginen gustura Pottoko estudioan. Askok eskertzen diogu Fredyri. Abesti batean hammonda sartu zuen.

Kepa Uranga: Maketa kurrikuluma bezala da azkenean, zure lana erakusteko. Lagungarria da taldea ezagutzera emateko.

Eñaut Araneta: Irailerako prest egotea nahi genuen, irailean, eskolan hasten ginenean lagunei emateko. Iraila iritsi zen eta Gaztelekun jotzea eskaini ziguten.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

PSIKOLOGI KLINIKOA

 **Jose Ramon Pato Prieto**
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak


SSANGYONG


LADA

ARANDIA GARAJEA
Autoen konponketa
N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



Arg.: Pedro Luis Uranga

Lehenengo kontzertua izan al zen hura?

Eñaut Araneta: Bai, baina orain arte ez dugu zorte handiegirik izan. Lehenengo kontzertua geneukanean, udan lokalean lapurreta egin ziguten, ahotsaren baflea eraman zuten. Ez geneukan zerekin entsaiatu, eta zinean lokal bat utziko zigutela esan ziguten. Musika Eskolari bafle bat eskatu genion eta ea kontzertua jotzeko bafleak utziko zizkiguten esan genien eta baietz. Lagundu ziguten. Handik bi-hiru astera, San Migeletan jo genuen.

Otsailean Ormaiztegin ere izan zenuten kontzertua.

Kepa Uranga: Han ere zorte txarra izan genuen. Otsailean izan zen haizete egun hura zen. Zalantzan egon ginen jo ala ez jo, eta jotzea erabaki genuenean, material guztia igo genuenean, argia joan zen.

Kontzertuetan gustura?

Eñaut Araneta: Gutxi eduki ditugu, baina gustura. Lazkaoko jaietan, apirilaren 23an joko dugu. Ea zortea daukagun!

Kepa Uranga: Kontzertuan, abesti berriak eta zaharrak joko ditugu.

Denetik entzun behar da

Zein musika estilo egiten duzue?

Eñaut Araneta: Ezberdinak dira abesti guztiak, eta azkena egindako abestiak oraindik ezberdinaoak.

Kepa Uranga: Hasierako abestiak ez genituen hainbeste landu. Oraingoak askoz ere gehiago lantzen ari gara. Baladak, lasaiak, distertsio gehiagorekin. Ezberdinak dira. Ez daukagu genero konkretu bat.

Entzuteko, zein musika mota gustatzen zaizue?

Kepa Uranga: Denetik entzuten dugu.

Eñaut Araneta: Gustatu, rockeroagoak, punk-rock.

Mikel Pajares: Punk asko gustatzen zait, rock&rolla, talde zaharrak..

Asier Gandarias: Denetik, gustatzen ez zaidanik ez dago.

Kepa Uranga: Denetik entzun beharra dago, konposatzeko ideiak ere batetik eta bestetik hartzeko.

ZUBARA
 Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
 Erreformat...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
 ABALTZISKETA

Arriak parrilan
 © 943 65 21 76
 ABALTZISKETA

ZALBIDE
 TOLARE
 SAGARDOTEGIA

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
 Implantologia
 Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
 Radiologia digital zerbitzua
 Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118




Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 25. zenbakia 2010eko apirila



Haur sahararrak gure artean
Elkartasuna
ikasgai



Saharar haurrek bi hilabete pasatzen dituzte gure artean

Basamortutik Goierrira oporrak pasatzera

Urtero saharar haurrak etortzen dira Goierrira bertako familietan bizitzeko eta abuztua pasatzera. Algamar elkarteak, Goierriko hainbat udalen laguntzarekin, antolatzen du haur hauen egonaldia.

Helburu nagusia, jaio eta hazi



Etxean saharar haurrak hartzeko 4 bide:

Udaleko gizarte teknikariaren bidez

Telefonoz: 688 675 942

E-mailez: goierri Sahara@gmail.com

<http://oporrakbakean.jimdo.com>

diren errefuxiatu kanpamenduetako baldintza gogorak ahaztea da. Adibidez, udan 50º-ra arteko tenperaturak jasaten dituzte basamortuan eta hemen liburutik ikasi dutena ikusteko aukera dute: ibaiak, mendiak, basoak, itsasoa... Mediki azterketak ere egiten zaizkie eta dituzten gaixotasunak sendatu.

Saharako haurrak Goierrira etortzeko ordea, haur horiek etxean hartuko dituzten familiak behar dira. Goierrira 7 eta 12 urte arteko haurrak etortzen dira eta hauek etxean hartu dituzten 4 lagunekin hitz egin du goierriHartok: Mikel Paredes, Maddi Garmendia eta Irati

Aranguren lazkaotarrak eta Maide Aldasoro ataundarra. Beraien etxean anai edo arreba bat gehiago izaten da laguntxo sahararra eta hasieran, ezagutu arte zaila egiten bazaie ere, behin ezagututa, oso ondo moldatzen dira. “Lehenengo urtetik aurrera hobeto moldatzen gara” diote.

Familiako bat gehiago

Bi hilabete egiten dute hemen sahararrek. Inguruko lekuak erakusten dizkiete, batez ere itsasoa, lakuak, errekak... desertukoak direnez ura dagoen lekuak gustatzen zaizkie. “Guk bizi normala egiten dugu, oporretara joan, lagunekin ibili... eta beraiek gurekin batera ibiltzen dira. Gure lagunekin ere ederki moldatzen dira”. “Normalean motxila batean beraien arropa ekartzen dute, eta hemen beste seme-alaba bat balitz bezala arropa eta behar dutena erosten die gure gurasoek”, gaineratu dute.

Hizkuntza ez da harremanetarako arazo, Maide Aldasororen etxean euskaraz egiten dute lagun berriarekin eta beste hiruak, berriz, gazteleraz. “Guk erdaraz egiten diegu gero han bere ikasketetan eta erabili ahal izateko”, argitu du Maddik.

Egonaldiaren hasieran eta bukaeran, etortzen diren saharar eta familia denak elkartzen dira. “Hasieran Ataunen eta bukaeran Lazkaomendin bazkaria egiten dugu”. Orain arte beti lagun bera etorri zaie etxeetara baina Maideri aurten berria etorriko zaio, behin 13 urte beteta ez baitira gehiago etortzen.

Saharar haurrak etxean izena emateko garaia oraintxe da. Maitzaren 20an bukatzen da.



Goiko argazkian: Maddi Garmendia, Maide Aldasoro, Irati Aranguren eta Mikel Paredes.

Behekoan: Saharako errefuxiatu kanpamenduetako eskola bat



“Oso jatorrak dira”

Zer moduzkoak dira? Kultura desberdintasuna nabari al da?

Beraien artean elkartzen direnean harrotu egiten dira, baina, bestela oso jatorrak dira.

Zerekin harritzen dira gehien?

Adibidez gure etxekoari behin platera erori eta hautsi zitzaion eta negarrez hasi zen, beraiek plater eta gauza gutxi dituztenez disgusto handia hartu zuen. Esan behar izan genion, lasai egoteko plater asko ditugula eta.

Zer dira beste anai-arreba bat bezala?

Bai, tarteka haserretu ere egiten gara baina...

Urtean zehar harremanik mantentzen al duzue?

Urtean bi edo hiru aldiz telefonoz hitz egiten dugu.

Maide bi aldiz egon omen zara Saharan eta Mikel zu behin.

Hango egonaldietan janaria da gutxien gustatu zaiguna. Gu bezala ez dira bizi baina ez da hain egoera txarra ere, daukatenarekin moldatzen dira. Bizitzeko beharrezkoa badaukate, badute gutxienekoa.



7 aldeak

Aurkitu itzazu bi argazkien arteko 7 desberdintasunak.



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Hiru xerri ttipi

Autorea: Paul François

Ilustratzailea: Sempé

Itzultzailea: Jean Luis Davant

Argitaletxea: Ikas

Orrialde kopurua: 16

4Hiru txerrikumeen tradiziozko ipuinaren bertsio bikoitza, liburuxka eta CDduna. Bertsio hau ahozko tradizioko ipuinen moldean kontatua zaigu, ahozketasunaren ezaugarriekin josia. Testua betikoa dela sentituko du irakurle-entzuleak, baina baita aldaera berezia dela ere, François-ek ipuinaren atmosfera era ezin hobeto islatu zuelako eta J.L. Davantek ematen dion ekialdeko hizkera batuaren freskotasunak mesede egiten diolako.

Aharrausi printzesa

Autorea: Carmen Gil

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Argitaletxea: OQO-Txalaparta

Orrialde kopurua: 36

Adin guztientzat. Lurralde urrun hartan bada printzesa bat eguna aharrausika pasatzen duena; ahaleginak eginagatik ere, ez dute neskatoaren aharrausi grina amai dadin lortzen eta, etsigarriena dena, erresuma osoko biztanle guztiak kutsatuak ditu: erregeak aharrausi, erreginak aharrausi, ministroek aharrausi... baita lorazainaren katuak eta txakurrak ere aharrausi! Nola sendatuko dute printzesa asperdura amaigabe honetatik?

Letra zopa


Ondoko letra zopan aurki itzazu
Goierriko 6 kirolariren izenak.



K	B	A	X	P	I	R	A	A	T	A
T	E	L	U	S	T	O	N	D	O	L
B	R	A	I	Z	A	R	E	I	A	A
E	E	P	R	O	E	R	A	P	K	B
U	Z	L	P	I	N	U	R	G	A	A
M	I	G	E	I	R	R	A	S	L	Z
N	A	L	G	U	K	Z	I	T	A	I
L	R	Z	A	S	R	A	E	T	O	D
T	T	P	L	K	X	E	R	J	E	N
L	U	Z	A	R	R	A	B	H	P	E
R	M	E	T	A	U	A	E	D	I	M
J	A	Z	U	R	M	E	N	D	I	T
E	R	E	K	O	N	A	S	I	R	D

Bereziartu
Elustondo
Mendizabal
Sarriegi
Azurmendi
Aierbe

Osatu irudia



Ordizia

Laburbira: euskal film laburren zirkuitua

Film laburren arloan euskaraz zer-nolako lanak egiten ziren ikusteko aukera izango da maiatzaren 6n Ordizian. Jarraian dituzuen 9 film labur izango dira pantailan.

'Ahate pasa'. Zuzendaria: Koldo Almandoz.

'Zorion hutsa'. Zuzendariak: Estibaliz Ariz, Itziar Faido, Janire Fernandez, Vanesa Martin, Malen Ulazia.

'Nora zoaz'. Zuzendaria: Iñigo Sanz.

'Clark&Boris'. Zuzendariak: Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia.

'Odisea etxaldean'. Zuzendariak: Urko Manduit eta Ioseba Salaberri.

'Nireak dira!'. Zuzendaria: Blakdandeker films.

'Neguko hitzak'. Zuzendaria: Epalzaren Alargunak.

'Esaiok'. Zuzendaria: Arkaitz Basterra.

'Amona Putz'. Zuzendaria: Telmo Esnal.

Beasain Ordizia

Antzerki Garaia

Apirilak 23, ostirala:

22:15ean: 'Lo que ellos ignoran de ellas' (Erre produkzioa). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Maiatzak 7, ostirala:

22:15ean: 'Cocidito Madrileño 2' (Glu glu producciones). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Beasain

XI. Igartza bekaren azken emaitza: 'Katu jendea'

XI. Igartza literatura-sorkuntzako bekan saritutako Eider Rodriguezen 'Katu jendea' liburuaren aurkezpena egingo da, apirilaren 23an, arratsaldeko 7etan, Beasaingo Udal Bibliotekan.

Idiazabal

XIII. Gazta eguna, maiatzaren 2an

Apirilak 28, asteazkena:

18:30ean: 'Idiazabal gaztarekin postreak' ikastaroa. Julki gozotegikoen eskutik, Arretxe elkartearen.

Apirilak 29, osteguna:

19:00etan: Maridaje jardunaldiak Iban Mate sukaldariaren eskutik: 'Idiazabal gazta eta txakolina' Elizalde elkartearen.

Apirilak 30, ostirala:

19:00etan: XI.Mami txapelketa. Jubilatuen Elkartearen.

Maiatzak 1, larunbata

17:00etan: II.Euskal artzai-txakur lehiaketa Arizkorreta ondo-ko belardian.

Maiatzak 2, igandea: XIII. Gazta Eguna:

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.

11:30ean: Gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia Ignacio Mari eta Benito Ezio-laza Goiburu herritarrei.

13:30ean: Sari banaketak: postu dotoreenari eta gazta one-nari.

Ondoren: Herri bazkaria eta 'Bentazaharreko mutiko alaiak' taldekoen kantaldia.

Oharrak:

- Gazta dastatzeko aukera izango da: 6 pintxo gaztai 2 eurotan.
- Mamia dastatzeko aukera izango da.
- Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta (txartela 2 euro).
- Artzaien postu dotoreena sarituko da.
- Gaztaia ketzen ikusteko aukera egongo da.
- Artzainak bere artaldearekin herria zeharkatuko du.
- Autobusa jarriko da aparlekuetatik herrira.



Ataun



Xabier Leteren poesia emanaldia

Maiatzaren 8an, iluntzeko 8etan, Herri Antzokian, Xabier Leteren poesia emanaldi berezia izango da. Bertan Joxe Jabier Imaz herritarraren olerkiak ere errezipitatuko dira. Sarrera: 5 euro.

Ibilaldi neurtua

Ataun Kirol Elkartek antolatutako, maiatzaren 2an, Ataungo mendi ibilaldia jokatu da, San Martingo Zelaieta etxe aurretik abiatuta.

Bi ibilaldi izango dituzte mendizaleek aukeran. Batetik, ibilaldi luzea, 4 ordukoa. Goizeko 8etan abiatuko dira ibilariak. Ibilaldi motzagoa ere izango da aukeran, 2 ordukoa. Hauek 10etan abiatuko dira. Izen ematea, irtera puntuan egingo dira.

Goierri



Aralarko larreak irekitzeko festa, maiatzaren 1ean

Maiatzaren 1arekin batera, Aralarko larreak irekitzeko festa egingo da, Larraitzen. Jarraian duzue egitaraua:

10:00etatik aurrera: Postuen irekiera eta Trikitilariak festa gunean zehar.

11:00etan: 'Benta Zaharreko Mutiko Alaiak' musika taldea festa gunean.

11:30ean: Mendiko behor eta zaldien Gipuzkoako lehenengo lehiaketa.

12:00etan: Aralarko larreak irekitzeko suziria botako da.

Ondoren:

✓ **Ardi moztailen desafioa:** Jesus Mari Goitia 'Egoarre', Miguel Mari Sagastume 'Aimendi'-ren aurka. Lana aintzina-ko erara egin beharko dute, argoraiziekin.

✓ **Bertsolariak:** Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi. 'Benta Zaharreko Mutiko alaiak' eta Trikitilariak.

✓ **Abere erakusketa:** asto, behi, behor, ahari etabar... Esku langintza saioak, artile, saski, harri lantzen, ohiko tresnen erakusketa eta abar...

✓ **Bertako produktuen salmenta,** ardi eta ahuntz gazta, Taloa, Sagardoa, Orein produktuak, Baserriko ogia... eta Aralarko Mapa, Liburu eta liburuxka.

17:00etan: Erromeria: Larraizko trikitixa.

ikaskide akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkuloa, ikasketa teknikak

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79

urraki@over.es www.over.es



Lazkaoko lagun taldea, 1948an

1948ko abuztuaren 15ean
Gabirian atera zuen argazkia
Lazkaoko lagun taldeak.

**Atzeko ilaran ezkerretik eskui-
nera:** Karmele Armendariz, eze-
zaguna eta Miren Armendariz.

Aurreko ilaran: Arantxa Zaldúa,
Pilar Mendia, Maria Barandiaran
eta Ixabel Agirre.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY


refacture



urdaneta
oianguren

OIANGUREN BHI
ORDIZIA

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
www.oianguren.net



OIANGUREN INSTITUTUA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 3tik 8ra

Bete-betean
asmatzeko
biderik onena!!



Berrikuntza ardatz duten
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK

**Maiatzaren 8an, larunbatean
10:00 etan**

4. Eraikineko Harrera Nagusian

ZATOZ!

Goierri • • •
eskola